


Botikak behar bezala kontserbatzeko aholkuak

Osasun Produktuen Espainiako Agentziak botiken kalitateari, segurtasunari eta eraginkortasunari eusteko ematen dituen gomendioak.

Arretaz irakurri behar da erabilera-orria, han jasotzen baitira beti botikak ondo kontserbatzeko jarraibideak.

Kontserbazio-tenperatura berezia behar duten botikek **ontzian bertan ematen dute** informazio hori




2°C eta 8°C artean kontserbatu beharreko botikak.

Botika horiek hozkailuan gorde behar dira beti (intsulina, txertoak, ...).

Hozkailutik atera bezain laster erabiltzea eta berriz **lehen bailehen** gordetzea gomen datzen da.

Hozkailuan, **ez gorde atean**, erdialdeko apal batean baizik.




Botikak nonbait eraman behar izanez gero, hozkailu eramangarrietan eraman daitezke, hotz-metagailuak baliatuta (edariekin edo janariekin egiten den bezala). Kontuz, hala ere **hotz-metagailuek ez ditzaten zuzenean ukitu botikak**. Ez izoztu.

Nola babestu **eramangarrian +2°C eta +8°C** artean gorde beharreko sendagaiak:



Babestu hotz-metagailua trapu batekin




Sartu medikamentua táper batean

25°C-tik behera edo 30°C-tik behera kontserbatu beharreko botikak. Halakoetan, nahiz giro-tenperatura tarteka 40°C-tik gorakoa izan, ez dio eragiten botiken kontserbazioari, arrazoi hauengatik:

Botikak etxean gordetzeko, **leku freskoak eta lehorrak** aukeratzea komeni da, eta, beraz, leku horietan baxuagoa izan ohi da tenperatura.

40°C-tik gorako tenperaturak **noizbehinka bakarrik** gertatzen dira Espainian, eta ez egun osoan zehar.



Botika batzuei **gehiago eragiten die berotasunak**, halakoetan irekitzean itxuraldatuta daudela ikusiz gero, **ez dira erabili behar**.

Ez da gomendagarria botikak autoan eguzkitan edukitzea, asko igo baitateke autoa tenperatura.



Botika askok ez dute behar kontserbazio-tenperatura berezirik, ondo kontserbatzen dira giro-tenperaturan, ez dira degradatzen sei hilabetez 40°C-ko tenperaturan utzita.

Oro har, botikak jatorrizko ontzian kontserbatu behar dira, eta botikinean gorde. Leku fresko eta lehor batean egon behar du, sekula ez eguzkipean, eta, jakina, erabilera-orria kontsultatu behar da kontserbazio-jarraibideak zein diren jakiteko. Erabili ondoren, farmaziako **SIGRE** puntuan utzi beti, bai ontzi hutsak, bai sobera gelditutako botika.